

Amalur ARTOLA | LEKEITIO

Sare sozialen bidez partekatzen den bideo sexual batek irekitzen du «Hirutter», Nerea Arrienen (Lekeitio, 1976) lehen eleberria. Martin, Gari eta Inesek osatzen duten triangeluak sare sozialez eta gizarte garaikideak horiez egiten duen erabileraz mintzatzeko parada eman dio Arrieni baina, batez ere, intimitateaz hitz egin nahi izan du. Intimotasunaren mugaz, baita intimitateak moztzeko ere ere.

Azalak ematen du pistarik edukiaz: hiru oin pare izara artetik agertzen, horietako bat aparte-ago, eta «Hirutter» izenburua.

Azalarekin kontrastea egiten du barruan dagoenak. Berez intimitateari buruzko nobela bat da, baina dualitate asko daude kontaktuz. Gaia intimitatea da baina intimitate hori moztzeko erak ere azaltzen dira, estereotipoak, eta horregatik jo nuen sare sozialetara. Nobelan leku berezia dute sare sozialek, niretzako estereotipoaren totema direlako; hortxe denok gara listoenak, guapoak, politikoki zuzenenak eta hortik hartzen dugu izaera dual hori.

Azalarena argialetxearen kontua izan da, baina, hartzen baduzu izenburua, «Hirutter», hain hotza, hain robotikoa edo inpersonala izatea nahi nuen nobelak berak ere itxura hori izan zezan nahi nuelako: kanpotik hotza izatea, estereotipoen kutsu hori edukitzea, eta barruan topatzea zerbait intimoa. Funtsean, intimitateari buruzko nobela intimo bat da [barreak].

Nobela esaldi iradokitzaile batekin irekitzen duzu: «Sare sozialak pertsonen kontrako minaz jositako su-zelaiak dira».

Nire ustez, sare sozialak saltzen dira komunikazioaren aldarri bezala, eta azkenean ez dakit ez ote diren ari inkomunikatzeko bide bilakatzen. Orain gutxi zenu zen filosofo batek, Zygmunt Baumanek, esaten zuen gure belaunaldikoak direla etengabeko kontaktuan dauden bakarlarriak, eta nik uste dut horretan bilakatzeko ari garela. Adibidez, despersonalizazio izugarria dakar sare sozialen kontu honek, azkenean ez dakizu nor dagoen atzean, eta afektua ere emoti-afektu bilakatu da... Kontaktu fisiko hori galtzen ari da. Heldu gara maitasuna emotikono batez adieraztera. Azkenean, tranpa bat bezala da: paradoxa sozial bat bezala saltzen da, izaki sozialaren paradoxa bezala.

Nola bizi dute errealitate hori eleberriko protagonistek, Ines, Gari eta Martinek, beren arteko harremanetan?

NEREA ARRIEN BIOKIMIKARIA ETA IDAZLEA

Orain hiru urte Lizardi saria eskuratu zuen «Pentsatzeko txokoa» (Erein) liburuagatik eta, iaz, Gabriel Aresti sariko accesita «Matrioska» narrazioagatik. «Hirutter» (Erein), helduentzat idatzi duen lehen eleberrian, sare sozialak eta intimitatea jarri ditu aurrez aurre.

«Ez dakit sare sozialak inkomunikaziorako bide bilakatzen ari ez ote diren»

“

Despersonalizazio izugarria dakar sare sozialen kontu honek, azkenean ez dakizu nor dagoen atzean, eta afektua ere emoti-afektu bilakatu da... Kontaktu fisiko hori galtzen ari da.



Gorka RUBIO | ARGAZKI PRESS

Trama bera abiatzen da emotikono baten ondorioz sortzen den etxekalte batetik, konfusio batetik, aipatu dizudan inkomunikazio hori hasieratik agerian jarri nahi nuelako.

Beraiek sareak moztzeko bezala erabiltzen dituzte, ez diren hori azaltzeko; beraiek badaukate alderdi bat, intimitate bat, lotsa edo pudorea ematen diena. Tramaren hasieran, adibidez, bideo sexual bat partekatzen da eta badirudi hori dela pudore gehien sor diezagukeena, gure bizitza pribatuaren atalak agerian geratzea, baina Inesi errutinarekin lotuago dauden bere bizitza pribatuko beste gauza batzuek ematen diote pudore gehiago. Orduan, berak eskol bat eraikitzen du, estereotipo bat, eta ez Inesek bakarrik, beste

biek ere eraikitzen dituzte euren estereotipoak eta horiek bat egiten dute sare sozialetan duten identitatearekin.

Norbere bizitza pribatua, nahi-ta edo nahi gabe, agerrarazteko dugun joeraz eta horrek dituen eraginez ere aritu zara.

Gure bizilagunen inkisidore bilakatzen ari garelako. Sare sozialek ere badute beste alde hori. Besteen bizitzan kuxkuxeatzen ibiltzen gara eta gero salaketa jartzen dugu sare sozialetan... Iruditzen zait gaur egungo sorgin erretzeak sare sozialetan egiten direla, Facebook eta Twitter direla garaiko plazak eta pospoloak sakelakoren botoiak, baina inork ez daki nortzuk diren plazan begira dauden horiek. Izatez, horrega-

tik eraiki nuen Inesen pertsonaia ere: Ines epaitua izango da, eta epaiketa hori da nobelaren ardatza.

Duela gutxi Erroman neska batek bere buruaz beste egin zuen halako kontu batengatik, bere bideo sexual bat agertu zela sarean eta izugarriko entzutea izan zuen, horrenbeste non azkenean neska bere buruaz beste egin zuen. Notizia hori irakurrita piztu zitzaidan txipa, azkenean daukagun bizitza on/off line horren muga ea non ote dagoen ikertu nahi nuen. Muga hori zehazteko nahia ere badago eleberrian.

Hausnartzen dugu sare sozialez egiten dugun erabileraren horretaz eta horrek gerora ekar ditzakeen ondorioez?

Nik uste dut ezetz. Eskuetatik joaten ari zaigun zerbait dela. Ze, adibidez, lagun batekin whatsappetuz ari bazara agian ez da ezer pasako, baina, nobelan gertatzen den moduan, hiruki birtual bat sortzen da eta hiruko hori lau bilaka daiteke, pentagono gero, eta, ustekabean, poligono erraldoi infinitu bat sortzen da eta hor jada egoerak eskuetatik ihes egiten digu. Hori da sare sozialen arriskua. Intimitatea non dago? Bikotean? Hirukotean? Noiz galtzen da intimitatea? Noiz hasten zaigu poligonoa eskuetatik ihes egiten? Egia da beti existitu dela aho-belarri kontu hori, baina, gaur bezala, globalizazioaren garaian har dezakeen magnitudearen bestekorik, ez dut uste.